



Conseil de Développement du Pays Basque
Euskal Herriko Garapen Kontseilua



GIZARTE ZIBILAREN FOROA

Zein lurralde proiektu Euskal Elkargoarekin?

Lantegiaren sintesia

Lanmolde eta lanleku berriak



Lanmolde eta lanleku berriak

Maud CARRICHON et Hélène MARTYk animaturik

AGERIAN DENA ETA JOKOAN DENA

Lurraldetik ahal bezain hurbil ekin behar zaio langabeziaren aurkako borrokari: tokian bertan, lan egiteko manera berriak entseatu beharra dago, esperientziak egin, asmatu. Alabaina, proiektu berriak **ikusgaitzak** izaten dira maiz: bada, adibidez, kooperatiba ekimen anitz, plantan ematen erraz direnak, baina horiek garatu nahi dituztenek **laguntza gutxi** dute.

Ez ditzagun ahantz komunikatu ezinik direnak (sare eskasa, teknologia berrien ezagutza eskasa), eta haiengana jo behar dugu: horren egiteko, lehenik, mugitzeko edo komunikatzeko zailtasunak nortzuek dituzten jakin behar dugu.

Aldi berean, enplegatzaileek lan molde berrietarako jarrera irekia behar dute.

Badugu tokian arazo larri bat, lan lekuetatik hurbil bizi ezina (batez ere sasoiari kasuan...). Jarduna **BABren inguruan bildurik da**, hau da, Ipar Euskal Herriaren zabalera osorako, «bazter batean»: beste alde batzuei eman lekieke lehentasuna.

Azkenik, **mugazgaidikoa** ere aipatu da: lanpostua eskuratzeko desberdintasunak murriztuko lirateke mugaren bi aldeetan diren eskubide eta betebeharrak harmonizatuz gero.

NOLAKO ARRAPOSTUA EMAN?

Euskal Herrian bada beti egin nahi bat (eta tokian bertan egin nahia): ekimenak identifikatu behar dira, lagundu, balioa eman, hala lan leku berrien mailan nola proiektuen mailan. **Lurralde inkubatzailea** izatea da gauza: lurraldea esperimentaziorako lurralde bilakaraztea eta horren jarraipena egitea, proiektuek iraun dezaten.

Orok igurikatzen dute dauden lan molde berriei buruzko **komunikazio gehiago** izan dadin, molde horiek ahal beste baliatuko badituzte: telelana hedatu, partekaturiko bulegoak ere bai, internet erabiltzen ez dutenen xerka joan.

Lan leku berriek **antolamendu egokia** behar dute: garraio publikoko sare eraginkorragoak, edo, telelana edo partekaturiko bulegoak hautatuz gero, horretarako behar diren zerbitzuak antolatzea (haurtzaindegia, posta).

URRATZEKO BIDEAK...

- **Jadanik baden ekosistema** eta sortzen ari dena oinarritzat hartzea
- **Koherentzia sozio-ekonomikozko eskema** eta formakuntza eskema egitea
- **Esperimentazio eta laguntze lurraldea** sortzea